



# Hauxe nahaspila!

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- LENGOAIA.
- HIZKUNTZA.
- TUTORETZA.

## HELBURUAK

- Sistema edo ekosistema baten osagaien arteko elkarrekintzaren ideia indartzea.
- Zerbait egiteko, taldean parte hartzearen esanahiaz jabetzea.

## MATERIALAK

- ◆ Artile-harila.

## Jardueraren garapena

Ikasleak, ahal dela, 8 lagunetik beherako taldeetan antolatuko dira, eta jolastokira, lorategira edo ikastetxetik hurbil dagoen beste leku egoki batera irtengo gara. Lurrean jesarriko gara, borobil handi bat eginez. Taldekide bakoitzak parkeko elementuren bat aukeratuko du ezaugarritzat: aulkia, txoria, zabua, euria, katua, papera...

Gero, taldekide bakoitzak beste batekiko lotura eratuko du, artilearen muturrari eutsiz eta harila kide horri botaz, esaldi batez erlazioa azaltzen duela.

Esaterako: txoriak zuhaitzean egiten du habia; umea zabuan dabil jolasean; paperak paperontzian egon behar du.

Jolasa garatu ahala, taldekide guztien arteko erlazioen sarea ehotuko da.

Dinamika bera erabil daiteke elikadura-katearen funtzionamendua azaltzeko —ume bakoitza ekosistemako izaki bizidun bat izango da.

